

POS-G53

*PD en Psicología: Individuo, Grupo, Organización y Cultura***IFD ETA HIZKUNTZA**

Ainhitze Larrañaga Paula Elosua

Psikologia Fakultatea

Hizkuntza dibertsitate baldintzetan, immigrazioa edo ingurune sozialaren elebiduntasunean definituak, ebaluaketen baliagarritasuna, testaren hizkuntzarekin erlazionaturiko bi faktoreek mehatxatzen dute. Alde batetik, ebaluatua den banakoaren dominantzia linguistikoa eta bestetik, puntuaketen arteko baliokidetasun psikometrikoa; puntuazioen baliagarritasuna aztertzen duelarik. Honela, inguruan eginiko ikerketetan, euskarazko eta espainolezko etekina alderatu zuten hitzezko ulermen frogaren bidez. Ikertzaileek aurkitutako emaitzetan ondorengoa ondorioztatu zen: emaitza hobeagoak azaldu zituzten, bi hizkuntzak bat egiten zutenean, hau da, hezkuntza hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat zetozenean. Kasu honetan, gaztelaniaz mintzatzen zirenen emaitzak hobeagoak izan ziren. Jarraian, testa gaztelaniaz egin zutenena, nahiz etxeko hizkuntza euskara izan. Emaitza okerrenak, hezkuntzak euskaraz jaso eta testa euskaraz burutu zutenenak lortu zituzten. Euskal Herriko Hezkuntza Ebaluaketa Institutuak burututako ikerketan antzerako ondorioetara iritsi ziren, frogatzean, testa gaztelaniaz egitean, edozein zelarik etxeko hizkuntza, emaitza hobeagoak lortzen zirela. Zentzu honetan, dibertsitate linguistikoa nagusi den ingurunean pasatzen diren test eta galdeketak ez dira baliokidetasun psikometrikoaren auzitik at geratzen. Izan ere, ebaluatuak diren ikasleak, ebaluaketa xede den gaitasunean desberdindu ezezik, testa egiteko beharrezko den gaitasun linguistikoan ere desberdintzen da. Ondorioz, lortutako puntuaketak ez dira psikometrikoki baliokideak izango. Honela adierazten dute egindako ikerketetan aurkitutako funtzionamendu diferentziala duten hainbat itemek. Ondorio guzti hauek, eztabaida jartzen dute mahai gainean. Test baten eraketa egokia sortzearen beharra, zailtasun linguistikoarekin edo eta nahita neurtzen ez diren prozesu kognitiboekin zerikusia duten garrantzirik gabeko bariantza ekidin asmoz.